

DESKRIBAPENA

Kaixo, gure taldeak *The Frij small company* izena du eta merkaturatuko dugun produktuak *inflaktor* du izena. Gure produktua erorikoak edukitzen dituzten pertsonentzako pentsatuta dago, haien segurtasunerako aurrerapauso handi bat suposatzen duela pentsatzen dugularik. Paredel baten antzera eusten den sare moduko bat da, gerrikaldean mekanismo berezi bat daukana eta inkorporatuta dauzkan sentsoreek pertsona erortzen ari dela detektatzen dutenean, airbag baten moduan puzten dena eramailea babesteko. Batez ere, adin handiko pertsonentzat zuzenduta dago, baita minusbaliotasun edota arazo larriren bat duten pertsonentzat ere. Denok dakigunez, ezaugarri honetako pertsonak arriskua dute erortzerakoan arazo larriak jasateko edota min handia hartzeko. Gainera haientzat, guretzat ez bezala, edozein kalte konponezina izan daiteke.

Laburbilduz, gehien maite duitugunak zaintzeko egin dugu ekarpena.